



## LANEAN 1111 HILDAKO 2008.URTEAN

Iazko urtean lan istripuetan hildako kopuruei begiratzen badiegu pozgarria iruditu ahal zaigu kopurua jaitsi egin delako, baina modu orokor batean begiratzen badugu gauzak aldatu egiten dira eta errealitatea bestelakoa da. 2008ko gure datuei begiratzen badiegu EAEn eta Nafarroan lanean hildakoak 101 izan dira.

Bukatzen ez diren eta min handia sortzen dituzten kopuru hauek adierazgarriak badira, ez da gutxiagokoa lan osasun arazoengatik eta modu ikusezin batean EAEn eta Nafarroan hil diren 1000 langileen kopurua (10 istripuz hildako bakoitzagatik); horrela adierazi dute 2008an lan osasunarekin lotuta dauden erakunde guztiek.

Zerrenda hauei lesio larriak sortutako lan istripuak gehitu behar zaizkie, baita lan gaixotasunak ere, Mutuek bideratuta eta gaixotasun arrunt bezala hartuta.

ESK eta STEE-EILASen ustez, egoera horrela jarraitzen du honako arrazoiengatik: ezegonkortasunak eta azpikontratazioak, eta hauekin batera datozen behin – behinekotasuna eta formazio/informazio falta, bereziki kolektibo ahulenekin lotzen direnak, hau da, emakumeak, gazteak eta etorkinak; enpresariak legea ez betetzea; Administrazio Publikoen exijentzia falta enpresei: lan ikuskarien gabezia (bat 3000 enpresako EAEn), eta koordinazio falta Osalan eta INSLrekin.

**Datorren martxoaren 1ean Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak daude; partidu politikoek beren programak plazaratzen dituzte eta promesak egiten dituzte, baina promesa horietan beti ahazten dituzte lanak eragindako heriotzak eta gaixotasunak.**

**ESKk eta STEE-EILASek LAN-OSASUNERAKO ESKUBIDEA EXIGITZEN DIEGU, LANGILEEI ESKUBIDE HAU BERMA DIEZAIETEN**

**Aipatu beharrekoa da Krisiarekin langile askori are gehiago iluntzen zaiela panorama; honelako egoeran enpresa askok lan-osasun eta segurtasunaren inguruko utzikierarako aitzakia aurkituko dute, prebentzio neurriei muzin eginez.**

**ESKk eta STEE-EILASek ZERA EXIGITZEN DUGU: LANTOKIETAN OSASUN- ETA SEGURTASUN-PREBENTZIO NEURRIAK EZ DAITEZELA GUTXIAGOTU KRISISAREN AITZAKIAZ**

**ESK eta STEE-EILAS-ek  
LANETIK OSORIK ETA OSASUNTSU  
ETXERATZEKO ESKUBIDEA  
DEFENDATZEN DUGU**